

Noaua!!



Gerra Zibilaren
70. urteurrena gogoan



Txokoaldeko Irisasi

Guardetxea zena, gazteen babesleku bilakatu da

ALDATZ KIROI MODA

Dena ERDI
prezioan

%50



LASARTE

AUTOINKOLA



943 36 27 93,
Usurbilen



hizkuntzak

Tlf: 943 371 402. kamden hizkuntzak. zubiaurrenea 6. usurbil

English courses for everybody

Spanish for foreigners

Matrikulazio epea zabalik Irailaren 11-tik

Txirrikitutik !!

Abuztuaren 21ean 16 urte bete ziren Joxe Mari Arantzazistroke "Arrantzale" hil zela Oartzunen, eskutan zuen lehergailuak eztanda egin zionean. Gertaera tamalgarri honen ostean, Herriko Batzarrak mozioa aurkeztu zuen udalean eta bertan, "Arrantzale" herriko "seme kutun" izendatzea eskatu zen. Orduan zeuden Herri Batasuneko bost zinegotziek (alkatea kanpoan zen) mozioko puntu guztien alde bozkatu zuten eta onartua izan zen. Gainontzeko alderdiak (EA, EAJ eta PSOE) ez ziren udalbatzara agertu. Erabaki honek zer esan handia izan zuen. Komunikabideen presioarengatik eta udaletxean jaso ziren mehatxuengatik, azkenean Patxi Añorga, Garbiñe Errekondo, Manolo Begiristain, Gabino Jauregi eta Joxe Mari Irazusta zinegotziak, apologiaren delituaz auziperatu zituzten. Lehen aldia zen Erkidegoko epaitegi batek apologiako delitua epaitzen zuena. Luis Navajas fiskalak zinegotzi bakoitzarentzat lau hilabete espetxe-zigorra eskatu zuen baina Entzutegi Probintzialak errugabeak aitortu zituen. Gobernadore zibilak eta fiskalak helegitea



1992.10.20, Gipuzkoako Auzitegi Probintziala, Donostia Iturria: "Herriak badaki, Usurbilgo memoria errepresiboa 1973-2002" liburua

jarri zuten epaiaren aurka. Auzi honen gorabeherak zortzi urte geroago amaitu ziren eta 2000ko urrian Auzitegi Gorenak Udalaren erabakia ontzat eman zuen.

zaloa@usurbil.com

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Danberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZeko ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

ESKULTURA BAT EGITEKO DEIALDIA _____ **5. OR.**

36KOEN OMENEZKO EKITALDIAK _____ **8. OR.**

Aitzaga Kultur Elkartek Gerra Zibilaren 70. urteurrena ekarri nahi du gogora. Irailaren 14tik aurrera, ekitaldi ugari izango dira gure herrian.



IRISASI, GAZTEEN BABESLEKU _____ **10. OR.**

HASTERA DOAZ SANTUENEO JAIK _____ **12. OR.**

KONTXAKO BANDERA, PIL-PILEAN _____ **15. OR.**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

HIESaren gainean eginiko goi bilkura

Duela egun batzuk amaitu zen Toronton egindako nazioarteko 16. goi bilera. Topaketa honek esanahi sinbolikoa ere badu aurten: 25 urte dira lehen kasuari horrela deitu ziotela (Hartutako Imuno-Eskasiaren Sindromea). Geroztik, 65 milioi kutsatu ditu birus honek eta horietatik 25 milioi hil dira. Egunero 11 mila kutsatzen dira eta 8 mila hil.

Hiesa Amerikako Estatu Batuetako homosexualen artean atzeman zuten lehen aldiz. Badakigu zein izan zen gizartearen erantzuna: haienganako iritzi erasokorrak, hiesa hauen sexualitateak merezi zuen zigortzat hartuz. Ondo merezitako punizioa zen, beraz, moral fundamentalistarentzat. Gero, sexu kutsadurak homosexualitatearen hesiak gainditu zituen eta heterosexualen artean zabaldu zen; orduan, promiskuitate nazkagarri baten ondorioztat jo zen. Hiesak xiringak elkarrekin trukatzan zituzten pertsona toxikomanoak jo zituenen are eta gehiago hazi zen bazterketa hori. Horrela, beraz, hiesak jotako horiek bi arazo dituzte: gaixotasuna eta eransten zaien estigma edo marka morala.

Lau puntu nagusi aztertu dituzte Kanadako hiriburuan:

1-Haurren egoera: hauek dira pandemia edo izurrite honen biktima nagusiak, hauek direla esango nuke hiesaren ezkutuko aurpegia. Ia egunero 1.800 kutsatzen dira 15 urtetik behekoen artean eta gehienak amaren haurdunaldian. Haurdunaldiko tratamendu itxurazkoarekin %2ra jaitsiko omen litzateke kopuru hori. Hain zuzen ere, Mugarik Gabeko Medikuek 4.400 kutsaturekin lan egin dute eta badirudi %91ren biziraupena lortu dutela tratamendu horrekin. Afrikan hamabi milioi umezurtz utzi ditu hiesak.

2- Emakumeei boterea eman behar zaie. "Bada garaia emakumeek botera eskuratzeko", hots egin zuen Keniako emakumeen ordezkariak Hego Afrikako kutsatuen artean, % 60 emakumezkoak dira. Emakumeen egoera okerragotu ahala, hiesa zabaltzen joango dela diote adituek. "Emakumeentzako botika prebenti-

boak eskuratuko bagenitu, gaitza aldatzeko tresnak edukiko genituzkeela uste dut", zioen Bill Gates ospetsuak. Profilaktikoen erabilpena ez dago oro har emakumearen esku; gizonezkoak agintzen du horren erabiltzea Afrikan eta Asian. Emakumezkoak nahi eta nahi ez behar du erabaki hau hartzeko eskubidea. Emakumeei erabakitzeak askatasun gehiago emanez gero, hiesaren arazoa murriztu egingo litzateke.

3- Prebentzioa izan da hirugarren gai nagusia. Birus hau duten mundu osoko % 10ek soilik dakite seropositiboak direla eta % 12ak bakarrik dute esku diagnostikoa. Hiesa garaiz antzematea ezinbestekotzat jo zuen Osasunerako Mundu Erakundeko (OMS) arduradunak. "Gaixotasunari erantzuteko aurreneko giltzarria prebentzioa da. Tratamendu kopurua handitzea ez da inoiz aski izango", esan zuen.

Urte osoko hiesaren kontrako tratamenduak 20.000 dolar inguru balio du eta, ondorioz, birusa duten %5ek soilik ordaindu ditzakete botikak.

4- Zenbait erlijio erakunderen eragina kaltegarria izan dela salatu dute goi bilkura honetan. Oso gogor kritikatu dute, adibidez, Vatikanoren jarrera preserbatiboei buruz: Vatikanoren ustez, kontrazepziozko metodo guztiek biziaren garapena eragozten dute. Beste buruzagi erlijiosoa batzuen arabera ere, ezmorala eta eragin gutxikoa da profilaktikoen erabilpena. Bill Gatesen emaztearen iritziz, zenbait erlijioen jarrera oztopo handia bilakatzen da. "Hiesaren aurkako borrokan preserbatiboei biziak salbatzen dituzte eta ez alderantziz".

Torontoko batzarraren amaieran zioen arduradun batek: "Topaketa hauek mundu osoko kontzientzia pizteko balio dute behintzat". Hori ondo dago, baina, haratago joan behar dute munduko buruzagiek, hau da, botikak merkeago jarri hiesaz jotako pobreenek ere erabil ditzaten. Nazioarteko kooperaziorik gabe, bilkura guztiak alferrikakoak dira, hipokresia huts bihurtzen dira.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO.

IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN

ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: irailak 15.

Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 11.

Zendoia

Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

ARRAINDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea,7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Eguzkitzan eskultura bat jartzeko deialdi irekia egin du Udalak

Eguzkitzako lanak laster amaituko dira. Lan zailenak eginak daude eta orain auzoa edertzea falta da: farolak, zuhaitzak, eserlekuak... Baina ez dira Eguzkitzako urbanizazio berriak izango dituen apaingarri bakarrak izango. Udalak eskultura bat jarri nahi du, farmazia pareko plazatzon hain zuzen. Zein eskultura jarri erabakitzeko, udalak deialdi irekia egin berri du. Deialdi honen arabera, eskultura gai honetara egokitu beharko da: Usurbil eta Sagardoa. Sagardo Egunak 25 urte bete dituen honetan, sagardoaren munduarekin lotu nahi da auzoa apainduko duen eskultura.

Baldintzak hauek izango dira: -Eskultura-proposamenak iturri bat edo ura izango du elementu finko bezala.

- Harrizkoa izan beharko du eskultura.
- Eskultura egin eta kokatzeko



PLAZATXO HONETAN KOKATU NAHI DA ESKULTURA.

12.000eur oko aurekontura mugatu beharko dira (BEZ barne) deialdi honetara aurkezten diren proposamenak.

- Bertso bat edo esaldi bat jartzeko tokia izan behar du eskulturak.

Ekimen honetan parte hartu nahi duen orok, hilabete bukaerarako make-ta bat aurkeztu beharko du udalean.

Informazio gehiago udaletxean, 943 37 19 51 telefono zenbakian.

Irailaren 12an hasiko dira Salvatore elizako organoa berritzen

Salvatore elizako organoak ia 100 urte ditu. Maiatzean aipatu genuen bezala, berritze premia du organoak. Irailaren 12an frantziar teknikariak iritsiko dira Usurbila. 10 egunez, piezaz pieza desmontatuko dute Salvatore elizako organoa. Hainbat hilabetez luzatuko dira zaharberritze-lanak.

Estimazio handiko organoa da Usurbilgoa, Pariseko Mutin / Cavaillé-Coll etxeak 1907an eginikoa.



FRANTZIAKO TEKNIKARI TALDE BAT IRITSIKO DA IRAILAREN 12AN.

Errauste-planten aurkako giza katea Kontxan

Aurreko urteetan bezala, igande honetan ere erraustegiaren aurkako ekitaldira lagun ugari bilduko da Kontxako hondartzan. Giza katerako dei egin dute erraustegiaren aurkako plataformek. Arlo sozial eta politikotik babes zabala eskaini zaio Kontxako Bandera jokatu baino lehen egin ohi den mobilizazioari. Hitzordua, goizeko 11:00etan Kontxako hondartzan.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

txirriStra

KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 460

pintxoak
ogitartekoak
platea konbinatuak

TABERNA

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

TXOKOALDE

IMANOL GOENAGA

Lapurrak abuzturik ez



Kaixo auzotar agurgarriak. Abuztuko oporrak bukatu ditugu eta hemen gara berriz ere auzoko gora beheretaz mintzatzeko prest. Abuztu hasieran, urtero bezala San Estebanak ospatu genituen, aurten, eguraldia nahikoa ongi portatu zaigu, hala ere, plazan jarri genituen haima edo aterpeei probetxua atera genien gauren batean. Hemendik aurrera aitzakiarik ez da izango plazan dantza egin nahi duenarentzat. Oso giro polita izan da aurtengoan ere festa hauetan, eta urteroko zozketako zenbaki saridunak hauek izan dira:

-Lehen saria, Zumeta jatetxekoa 0336 zenbakia.

-Bigarren saria, Saltxipi jatetxekoa 1200 zenbakia.

Abuztuan ordea ez dugu festa soilik izan, bestelakoak ere gertatu baitira. Esaterako, gure auzoko Erroizpe soziedadean (elkartean), lapurrak sartu ziren. Aurten jada hiru bider izan dugu lapurren bisita eta aurrekoetan bezala, hauek elkarte barrura sartzeko egindako kalteak ordaintzen, lapurrek eurak hartutako dirua baino gehiago gastatu beharko da. Betikoa, 2 duro eramateko 100 duroko gastua utzi digute bertakoei. Elkarteko kontuekin jarraituz, bertako bazkideei urteko kuota ordaintzeko garaia heldu dela aipatu nahi genieke.

Azkenik, eta gaiaz erabat aldatuaz, irailaren 22an, Akerra gaztetxean kontzertua izango dugu. "Dark Avenue" eta "Choen" taldeen eskutik. Badakizue, beti bezala guztiok gonbidatuak zaudete.

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

Iraila



Erakusleihotako manikiak zain daude, biluzik, noiz jantziko dizkien neguko arropak. Jendea zain dago noiz ikusiko dituen jantzita. Saltzailea zain dago noiz ekarriko dizkien jantziak.

Ikastolan berriz, gelak umeen zain daude. Andereñoak prest dituzte gelak umeentzako.

Gurasoak zain dituzte motxilak umeek ikastolara bidaltzeko, eta umeek egunak kontatzen dituzte, 8, 7, 6, 5, ... 1 falta dira lagunekin elkartzeko, udarako abenturak kontatzeko.

Parkeak eta plazak umeek, eta beraien buila, karrasi eta irriz betetzen doaz.

Bestalde, udarako isiltasuna bukatu da. Atsedean bat hartu eta gero Kale Nagusiko taladroaren zarata, kalearen berrikuntza lanak aurrera doazela gogorazten digu.

Egunak berriz moztzen doaz, eguna joan eguna etorri. Eguzkia goizago oheratzen denez, argitasun orduak gutxitzen doaz. Tenperaturak beheraka egin du, eta ohean manta baten beharra antzematen da. Halere izango ditugu oraindik egunak eguzkia lagun, hondartzan, terrazetan eta mendian gozatzeko.

Abuztua joan da. Iritsi da iraila. Aldaketa garaia.



KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Ongi etorri ikasturte berrira

Zer moduz joan da uda? Bero-zale direnengiztat egia esan ez da hain uda aproposa izan baina tira, badirudi iraila ona egingo duela eta aukera duenak ez du aprobetxatu besterik!!

Udaldia edo oporraldia amaitzarekin batera, garai berri bati hasiera ematen zaio hainbat eta hainbat arlotan; ikastoletan kurtso berriaren hasiera, kirolean denboraldi berriaren hasiera, politikan ere kurtso berriaren hasiera...

Urte hasiera ezezik, momentu hau ere egokia izan ohi da urte hasieratik hona egiteke dugun edo ditugun gauza horiek abian jarri eta urtea amaitu baino lehen egiteko. Nori ez zaio burutik pasa "kirola egiten hasi behar dut", "halako ikasten hasi behar dut" edo antzekorik? Joera handia dugu garai honetan promesa ugari egiteko eta horixe da, hain zuzen ere, egun hauetan ikusten ari naizena. Besteak-beste, politika arloan hasiak dira jada hainbat promesa egiten; gutxiengo pentsioak bikoiztu egingo direla eta antzerakoak esaten. Ikasturte nahikoa potentea izango dugula iruditzen zait, gurean behinik-behin, datorren urteko hauteskundeak direla eta.

Aprobetxatu dezagun bada momentu hau hemendik urte amaiera bitartean zer egin nahi dugun erabakitzeko baina hori bai, urte amaieran egin dezagun azterketa bat eta ikusi ea zenbaterik gaitzen duten azterketa hori, esandakoa bete egin dutelako!



ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Lanera, ikastera eta futbolera!

Urtero gerta ohi zaigun moduan, konturazterako irailan sartu gara, oporrak amaitu dira (izan baditugu) eta gure eguneroko errealitate itzultzeko garaia iritsi zaigu. Egutegiari begira geratu behar orain hurrengo jaiegunaren zain. Kosta egiten da betiko errutinararen bueltatzea, eta batez ere lanean edo ikasten hastea. Hala ere garai zail hauei aurre egiteko modu osasuntsua badute batzuek kirola eginez.

Usurbil Futbol Taldeko mutil zein nesken taldeak hasiak dira euren denboraldiak prestatzen. Mutilek badaramate jada denbora pixka bat entrenatzen, aurtengoan maila onena emateko asmoarekin. Neskak mutilak baino beranduago hasi dira entrenatzen eta azken momentura arte taldea osatuko zen ala ez dudana egon diren arren badirudi talde polita osatzea lortu dela.

Ea aurtengo denboraldian zortea alde duen Usurbil FTK. Partidak etxean jokatzeko aukera iristeko irrikitan gaude denok, futbol-zelai berria estreinatzeko ilusioa aspalditik baitugu eta ea herritarren animoek garaipen bat lortzeko balio duten.



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Auzoko festak



Dagoeneko gehienok oporrak igaro ditugu eta lanean hasiak gara. Gogorra izaten da buelta hori. Hala ere gauza onak ere ekartzen ditu iraila hasiera honek, gure auzoko festak adibidez eta ez dira festa makalak izaten.

Aurten ere ikuskizun berriak izango ditugu, "Esencia Argentina" adibidez: Argentinako herrialde eta ohiturei buruzko ibilbide batera eramango gaitu. Ikuskizun hau ikusteko aukera irailaren 15an izango da gaueko 21:00etan plazan.

Eta egun berean 12:00etatik aurrera rock kontzertu bikaina entzunteko aukera izango dugu: Ipar Haizea zarauztarrak eta Usurbilgo Mendeku ItXua eta Despervicio. Bi emanaldiak ikustea izango da onena, tartean bokata bat janez.

Larunbatean, "afari abestua" dugu, ondo afaldu eta gustura abestu, zeinek ez du hau gustuko? Ondoren Larra DJarekin dantza saioa egiteko aukera, esan didanez gainera, eskertuko luke jendea play-black egitera aterako balitz, edo abestera, edo "streeptesa" egitera... Eta igandean, aspaldiko partez, zezenak eta bigantxak izango ditugu beraz, toreroak prest egon daitezela.

Guzti hau zerbait azpimarratzeagaitik, baina azpimarratu behar dena, beste urte betez gure elkarten lana da. Ez baikenuke festarik izango Ibai-Ondo eta Santu-Eneako elkarterik gabe, eskerrak zuei eta eutsi goiari.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

San Estebango jaiak



Agur bero bat guztiei Usurbilgo txoko honetatik!

Jada irailean sartuak gara eta egunak aurrera joan ahala, uda ere atzean uzten joango gara. Abuztua eguraldiari dagokionez nahikoa nahasia izan bada ere, udan beti izan ohi da ongi pasatzeko aukerarik nonnahi.

Eta horretarako aukera polita San Estebango jaietan izan genuen. Abuztu hasierako lehen egun haiek jada atzean utziak baditugu ere, jai giro ederrean egun ederrak igarotzeko aukera izan genuen.

Urtero legez, ez zen ezertxo ere falta izan gurean. Jubilatuen bazkaria, umeen eguna, zezenak, buruhandiak, ikustera eta parte hartzera gero eta jende gehiago hurbiltzen den "joku sorpresak", herri-kirolak, igande arratsko erromeria... Festa konpleto-konpletoak izan dira aurtengoak!

Eta nola ez, eskerrak eman behar bertara hurbildu ziren guztiei: zahar, gazte, guraso eta urtero bezala gurean "zita"rik galtzen ez duten beterano guztiei!

Bestarik gabe, hurrengo arte!

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Eskatzea libre



Sumatzen dudanez badira hainbat zerbitzu Aginagara oraindik iritsi ez direnak, eta dirudinez beste puska batean ailegatuko ez direnak. Horietako bat gas naturala etxeetara iristea da. Alde guztietan ari dira gas hori jartzen, Gobernua ere hori ari da bultzatzen. Baina gas naturala Usurbildik Oriora eramaterakoan Andatza-Irisaitik barrena pasa zuten. Ondorioz, Aginagan gasa nahi duenak butano kamioiaren zain egoten segi beharko du, edo norberak bere etxe ondoan depositua antolatu.

ADSLarena da beste adibide bat. Gure etxeetan gero eta gehiago erabiltzen dugu Internet: haurrek beren jokoetarako eta elkarrekin hitz egiteko, edonork posta elektronikoz komunikatzeko, munduko edozein aldizkari irakurtzeko, kontzertuetarako sarrerak lortzeko, eta abar. Gauza guzti horiek txukun egin ahal izateko (eta Interneten ari garen bitartean telefonoa libre uzteko) ADSL sistema ia derrigorrezkoa bihurtu da. Begira ba: Usurbilgo herritar askok ez dute jakingo, baina Aginagan ADSL linea bat ezin da lortu. Dena den eta ardura-dunen hitzetan, nahikoa litzateke errepikagailu bat ipintzearekin.

Usurbilgo kaxkoan zuntz edo fibra optikoa jartzeko mugimendua hasita dago, eta pozgarria da. Baina kaxkotik aparte samar bizi garenon alde ere konpromiso gehiago eskatu behar diogu Udalari. Badakigu ADSLaren kasuan enpresa pribatuak ere sartzen direla, baina norbaitek lagundu beharko digu. Udaleko agintariok: aurtengo San Praixkuak gainean dira baina hurrengo urtekoetarako izango al dugu ADSLrik Aginagan?

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Abuztua



Kalekumeontzako abuztua lanik ez egiteko sasoia izaten da baina izan da, bai, abuztu honetan herria zaintzeaz gain bestelako lanik egin duenik.

Uztailari segida emanez abuztuko tomate uzta oparoa aprobetxatu eta tomatea potertzten lana erruz egin dute batzuk; piperrekin, beste horrenbeste. Beste batzuk, berriz, hegaluzeetan arrantzaleek uda honetan jaso duten uzta historikoa aintzat hartu eta makina bat atun-potez bete dugu sotoa. Abuztua baino, HAU UZTA!

Perretxiko eta ondoko bila basora joan eta burumakur itzuli denak, berriz, masustekin konformatu behar...

Bestalde, eskola txikiko haur eta gurasok espero zuten uzta oraindik ez dago jasotzeko moduan; uzta garaian lokartzen dena miserian iratzartzen omen da eta eskolako handitze-lanen atzerapenak umeen oporrak luzatuko ditu segur aski.

Azkenik, eta azkenean!, Herri Batzarrekoen aldarrikape-nek ere ekarri dute uztarik eta aurki irekiko dituzte Zubietak hain beharrezko dituen frontoi osteko lokalak. Zorionak eta ea bada probetxurik ateratzen diegun.

36koen omenez

1 936ko irailak 17. Iruretagoiena koronela buru zela, Mendizorrotz aldetik tropa frankistak Usurbilen sartu ziren. Udalbatza berria osatu zuten. Okupatzaileek mehatxuz betetako mitina eskaini zuten herriko plazan. Denborarekin Gipuzkoako gainerako zonaldeak bezala, Usurbil frankisten esku geratu zen. Hortik aurrera, hainbat herritar espetxeratu zituzten. Askok ihes egin behar izan zuten. Frankistek 18 eta 48 arteko gizonezkoak soldadu eramaten zituzten; usurbildar batzuk tartean. Usurbildar bat baino gehiago aritu zen Errepublikaren alde borrokan eta frontean bizia galdu zuen. Horiek 1936. urtean hasi eta hiru urte geroago amaitu zen Gerra Zibileko pasarte ilunetako batzuk ditugu. Horren ostean, berrogei urte luze iraungo zuen diktadura bizi behar izan zuten, gerra hartatik onik atera zirenek.

Herritar askorentzat amets gaizto hura hasi zenetik 70 urte igaro dira. Urteurrena ganean dugula, gudariak omendu eta orduko gertakariak gogoratzeko herri askotan ekitaldi ugari antolatzen ari dira. Usurbilen Aitzaga Kultur Elkartek hil honetako bigarren hamabostaldirako orduko gertakariekin lotutako omenaldi, hitzaldi eta film proiektzioak antolatu ditu. Urteak joan ahala, geroz eta gutxiago dira bizirik diren eta orduko esperientzia latzari buruzko kontakizuna egin dezaketen herritarrek. Elkartetik adierazi dutenez, "belaunaldi hura joaten ari zaigu. Pasarte triste, traumatiko edota tragiko haiek ezagutzen dituen oso jende gutxi geratzen zaigu".

Orduko bizipenen kontakizuna egiteko prest daudenak, are gutxiago dira. Hain zuzen, urte haietako bizipenak barrurako gorde izan dituzte gehienek. Aitzaga Kultur Elkartekoek gogoratzen dutenez, "isiltasuna frankismoan izugarria izan zen. Oso gutxi hitz egin da oro har, baita gudarien



1942AN PRESOEN ALDE DIRUA BILTZEAGATIK ESPETXERATU ZITUZTEN HAINBAT LAGUN; TARTEAN MANUEL SAGARDIA USURBILDARRA (1); ANJEL ALIRI ZUBIETARRA (2), JOXE VILA (3) ETA BENJAMIN GORDOSTEGI (4) LASARTEARRAK. OTSAILETIK ABENDURA BITARTEAN EGON ZIREN ONDARRETAKO KARTZELAN

—HERRIAK BADAHI (2002) LIBURUTIK JASOA—

familietan ere". 70 urteren buruan, orduko kontakizuna egiterakoan itzal hark hor dirau. Ondorioz, garai hartan zehazki zer gertatu zen ez dakiten belaunaldi bat baino gehiago dago. Horregatik guztiagatik, Udalak lagunduta, antolatzaileek prestatu duten ekitaldi sortaren bidez bi helburu bete nahi dituzte: batetik, gudariei egin eta sufritu duten guztiagatik inoiz egin ez zaien aitortpena egitea eta bestetik, jendea informatzeko haien testigantzak jasotzea. Antolatzaileek herritarrek etortzera gonbidatzen dituzte, "azken finean herritarrek egin behar bailiekete aitortpen hori".

Irailaren 27an, Gudari Eguna

Aipatutakoak gerra garaiko gudariak omentzeko ekitaldiak dira, baina Aitzaga Kultur Elkartetik ez dute ahaztu nahi aspalditik daudela gudariak, zoritxarrez eta behartuta. Azken urteetakoak, herrikoak (Joxe Luis Segurola "Nazkas", Joxe Mari Arantzazistroke "Arrantzale" eta Joxe Martin Sagardia) eta oro har, eusko gudariak gogoratu eta omentzeko,

urtero bezala, hilaren 27an ere ekitaldiak izango dira.

Bost usurbildar fusilatua

Tropa frankistek arrasto handia utzi zuten herrian. Espetxeratuak, soldadu gisa hartu zituzten usurbildarrak... Eta hildakoak. "Herriak badaki, Usurbilgo Memoria Errepresiboa" liburuan biltzen denez, bost usurbildar fusilatu zituzten egun gutxiren buruan. Joxe Mari Furundarena Begiristain Aginagako elizakoa Lasarten hiru hila-betez preso izan ondoren Tolosan fusilatu zuten. Leku berean preso egon eta gero, Orioko mendatean Zabaleako Patxi Aizpurua eta Kosme Yaguez Zubietako maisua hil zituzten. Kalezarko Kaxkoeneko Joxe Galarmendi Zizurkilen fusilatu eta lurperatu zuten. Azpeitia aldera zihoan autobus bateko bidaiariek bi gorpu ikusi zituzten bide bazterrean botata. Aiako gizonezko bat eta Juan Bautista Aginaga Otegi Gaztainagakoa ziren zendutakoak. Meagasen fusilatu zituzten.

Hilaren 17koa ekitaldi berezia izango da

Tropa frankistek Usurbilgo lurak zapaldu zituztenetik 70 urte beteko dira irailaren 17an. Zazpi hamarraldi betetzen diren egun berean, frankistek atxilotu, fusilatu edota haien aurka borrokatu zutenekin oroitu, egindakoa eta sufritutakoa aitortu eta omenduko dituzte. Eguerdiko 12:30ean hasiko da ekitaldia, izen sinbolikoa duen plazan, Askatasuna plazan. Xumea baina bertaratzen den ororentzat goxoa eta gertukoa izango da. Egitarauko ekitaldi nagusi horren aurretik, antolatzaileek mendi irteera prestatu dute. Goizeko 10:00etan Bordatxo mendira igotzeko aukera izango da. Bertan, ikurriña ezarriko da eta, segidan, 12:30erako Askatasuna plazara hurbilduko dira.

Horretaz gain, hilaren 14tik 21era Gerra Zibilaren gaia jorratzen duten bi film proiektatuko dira Sutegin. Lauxetaren biografiari buruzko euskarazko filma eta Katalunian lekutzen den Gerra Zibilaren inguruko Ken



“TIERRA Y LIBERTAD” FILMA
SUTEGIN IKUS AHAL IZANGO DA
IRAILAREN 14AN.

Loachen “Tierra y Libertad” lana ikus entzunezkoen atalean. Leku berean hitzaldia eskainiko du Iñaki Egaña historialariak. Gerra Zibilaren harira herrian eta inguruetan bizi izan zena gogora ekarriko du. Inguruetako berri izateaz gain, herriko zenbait datu ditu esku artean. Horiak ezagutzeko parada izango dugu hilaren 21ean. Egaña Arantzadirekin elkarlanean dabil fusilatutako gorpuzkinak aurkitu eta berreskuratze lanetan.

Ikur frankistak kentzeke

Uztaila amaieran Memoria Historikoaren Lege Proiektua onartu zuen Espainiako Gobernuak. Egitasmoa Gerra Zibilaren eta Frankismoaren biktimak aitortzeko asmoz bultzatu da. Proiektu horrek aipatutako gobernu horren, autonomia erkidego eta udalen eraikin ofizialeatik ikur frankistak kentzea aurreikusten du. Agerian zeuden batzuk kentzen hasiak dira. Franco bera irudikatzen duten monumentu batzuk, adibidez. Baina ez leku guztietakoak. Bazterretatik zer ezabatua bai baitago. Berria egunkariak abuztuaren 4an hemen duzuen argazki hau zekarren. Irudian, frankismo garaiko babes ofizialeko etxebizitza askotan jarritako dagoen ikur frankista duzue. Frankismo garaiko Etxebizitza Ministerioak ezarritako plakak honakoa



dio: “Etxebizitzaren Erakunde Nazionala: Babes Ofizialeko Etxebizitzaren erregimenaren babesean eraikitako etxebizitza” (erredakzioan itzulia). Ba al dakizue nongo horman dagoen esekita? Hemen, Usurbilen. Beraz, beste hainbat bazterretan bezala, herrian sufrimendu latza eragin duen garaiari erreferentzia egiten duten ikurrak kentzeke daude.

Gerra Zibilaren 70. urteurrena

IRAILAK 14, OSTEGUNA

21:00 “Tierra y Libertad”, Ken Loachen filma Sutegiko auditorioan.

IRAILAK 17, IGANDEA

10:00 Bordatxo mendira irteera. Bertan, ikurriña jartzea.

12:30 Gudariei omenaldia Askatasuna plazan.

IRAILAK 19, ASTEARTEA

21:00 “Lauxeta-Lau Haizetara”, J.A. Zorrillaren filma Sutegiko auditorioan.

IRAILAK 21, OSTEGUNA

19:30 “Gerra Zibila Usurbilen eta inguruan” hitzaldia Iñaki Egaña historialariaren eskutik Sutegiko auditorioan.

Antolatzailea: Aitzaga Kultur Elkartea.
Babeslea: Usurbilgo Udala.

Lekukotzak bildu ezinean

Lehen pertsona bizi izan zutela-ko, Gerra Zibila bizi izan zuten herritarrek gaiari buruz jakin dezaketena balio handikoa da. Haiek baka-rik baitakite zehazki zer sufritu zuten urte ilun haietan. Dagoeneko askok barruan gordeta eraman dituzte bizi-pen horiek. Baina oraindik bizirik diraite lehen pertsona Usurbilen hiru urteko hartan bizi izan zena dakitenak.

NOAUA! Gerra Zibila gertutik bizi izan zuten herritar batzuekin biltzen saiatu da. Iaz, bi herritarren lekukotzak jaso ziren aldizkarian: Manuel Goenaga eta Antonio Pello Aranbururen hitzak hain zuzen. Tropa frankistak herrian sartu zirela 70 urte betetzen diren urte honetan, aldiz, inoren testigantza jasotzea ezinezkoa izan zaigu. Beldurra eta oro har, hitz egiteko gogo eza nagusi dira gertakari beltz haiek lehen pertsona bizi izan zituzten herritar askoren artean.

Txokoaldeko Irisasi, gazteen babesleku

Portaera arazo larriak dituzten adingabeak hartzeko, Irisasi zentroa jarri du martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak. 13 eta 18 urte bitarteko 12 gazterentzako tokia du Txokoaldeko etxe honek. Orain sei gazte daude Irisasin baina laster beteko dira 12 plazak.

Esther Larrañaga Gizarte Politikako diputatuak inaugurazio ekitaldian azaldu zuenez, azken urte hauetan gizarte zerbitzuetan lagundutako adingabeen ezaugarriak nabarmen aldatu dira: «Helduak dira, nerabeak. Normalean, familian arazoak dituzten gazteak dira, arauak eta aginduak onartzeko arazo ugari dituztenak. Afektibitate falta ere izaten dute». Diputazioak Irunen, Tolosan eta Donostian ere baditu zentroak; guztira, 20 etxe eta 200 adingabe hartzeko tokia dute.

Irisasiko zentroak helburu terapeutikoa du. Adingabe bakoitzeko lau hezitzaile izango dira, ahalik eta arreta pertsonalizatuena izateko. Dena den, Irisasiko kudeatzaileen asmoa argia da: zentroan denboraldi bat pasatu ondoren, gazteari etxera itzultzen lagundu behar zaio.



ERABERRITZE-LANETAN 1.028.441 EUROKO INBERTSIDA EGIN DA.

Guardetxe izandako etxea

Irisasi zentroa, garai batean, guardaren etxea izan zen. Foru Aldundiaren eraikina, ordea, osorik eraberritua izan da (inbertsioa 1.028.441 eurokoa izan da).

Etxeak hiru solairu gehi teilatu azpikoa ditu, guztira 616 metro karratu, eta kanpoan 2.200 metro karratuko lurzatia.

Sotoan zentroko zerbitzuak jarri dira: sukaldea eta sukalondoa, garbitokia, aldagelak, galdara gela, biltegia

eta jardueretarako gela bat.

Behe solairuan daude zuzendaria- ren eta hezitzaileen bulegoak, bilera gela, informatika gela, jangela, egongela, bainugela egokitu bat, bisita gela eta terapia gela.

Lehen solairuan, berriz, irakurgela, gaueko hezitzailearen bulegoa eta logelak eta komunak. Teilatupean beste sei gela daude, azken hauek pertsona bakarrekoak.

IMANOL UBEDA

Uztailaren 27an zabaldu ziren Irisasi zentroko ateak

Esther Larrañaga Gizarte Politikarako diputatuak uztailaren 27an inauguratu zuen Irisasiko zentroa, eta diputatuarekin batera bertan izan ziren zentroa kudeatuko duen CLECE enpresako buru Vicente Ortega, Ainara Rubert Irisasi zentroko zuzendaria eta Luismari Ormaetxea alkatea, besteak beste.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 720.000 euro baino gehiago jarri-

ko ditu urtean zerbitzu honen kudeaketan. Gainera, Irisasi irekitzearekin batera, Esther Larrañaga diputatuak adierazi zuenez, "hainbat hobekuntza egingo dira Gipuzkoako adingabeen zentroetan, ahalik eta atentzio banakakoena eta espezializatuena eskaini ahal izateko".

Irunen, Tolosan eta Donostian ere badira antzeko zentroak; guztira, 20 etxe eta 200 adingabe hartzeko tokia dago Gipuzkoan.



INAUGURAZIO EKITALDIA UZTAILAREN 27AN EGIN ZEN (ARGAZKIA: NOTICIAS DE GIPUZKOA).

Ainara Rubert, Irisasi zentroko zuzendaria

“Gazte hauek familia hondatutatik iristen dira hona”

Ainara Rubertek era atseguinean jaso gaitu Irisasin. Txokoalden jaso duten harrera ere oso ona izan dela aitortu digu. Pozik dago Foru Aldundiak Txokoalden egokitu duen egoitza honekin. Gazte hauen integrazioa bideratzeko oso egokia dela uste du.

NOAUA! Zein da zuk zuzentzen duzun zentroaren zeregin nagusia?

Ainara Rubert. Gazte hauek arlo guztietan integratzea da helburu nagusia: bai familian, bai gizartean, bai eta lanean ere. Ikasturte berria hasterakoan, gazte hauetako bakoitza dagokion lekura joaten hasiko da, batzuk eskolara, besteak lantokira. Baina hemen biziko dira. Egunero euren ikastetxeetara edo lantokietara hurbilduko ditugu; euren bila ere joango gara. Horrez gain, euren adinako jendea ezagutzeko asmotan, eskola kanpoko jardueretan parte har dezaten saiaturko gara; kirol talde batean, esaterako. Familiarekin ere harremanak manten ditzaten saiutzen gara eta hasieratik bisitak izaten dituzte.

AINARA RUBERT

“Irisasin dauden gazteak ez dira gaizkileak, ezta drogadiktoak”

N. Nolakoa da gazte hauen profila.

A. R. Sozializatzeko arazoak izaten dituzte. Batzuk arazo psikologiko edo psikiatrikoak, eta beste batzuk portaera arazo larriak, besterik gabe. Seguru asko haurtzaro egokia izan ez dutelako sortu dira; adibidez, batzuk ez dira eskolara joan. Gure kasuan, familia hautsitatik datoz asko: gurasoak alcoholikoak dira edo drogaren menpe



AINARA RUBERTEK ESAN DIGUNEZ, IRISASIRA IRISTEN DIREN GAZTEEK GUTXIENEZ SEI HILABETEKO EGONALDIA EGITEN DUTE.

daude, edo desoreka psikologikoa dute.

N. Familiaren garrantzia azpimarratu duzu. Irisasitik gazte horien familiei laguntzen al zaie?

A. R. Tratamendu beharrean dauden kasuetan, hemendik laguntza non jaso dezaketen adierazten diegu gurasoei, eta dituzten aukerak azaldu. Familia tratamenduan jarri eta hobetzen bada, gaztea etxera itzul daiteke. Zentro guztiek dugun helburu idealizatua da.

N. Beraz, gaztea bere etxera itzultzea da helburua.

A. R. Bai baina gazte gehienak familia hondatutatik iristen dira Irisasira. Batzuk, Aldundiak dituen beste egoitzetatik eta beste batzuk familietatik zuzenean iristen dira guregana. Foru Aldundiak larrialdiko zentroak ditu eta hara eramaten dira gazteak lehenbizi. Aztertu eta familiara itzultzen den edo egoitza batean sartzen den erabakitzen da. Portaera arazo larriarik ez badu, adibidez, pisu

normalizatu batera joango da eta han bere adineko edozeinek bezalako bizimodua izango du; hezitzaileen babesean biziko dira, hala ere. Baina portaera arazoak edo arazo psikologikoak dituelako gaztea ez bada pisu horietara egokitzen, Irisasira ekartzeko eskiera egiten da. Ondoren adaptazio prozesua hasten dute Irisasin. Gutxienez sei hilabeteko egonaldia egiten dute gazte denek.

N. Etxe aldamenean horrelako zentro bat zabaltzen dutenean, badira kezkatu egin ohi direnak. Zentzu horretan, zer esango zenieke Txokoaldeko zein Usurbilgo herritarrei?

A. R. Esan behar dut oso harrera ona egin digutela Txokoalden. Aldameneko bi baserrietako bizilagunekin oso harreman ona dugu. Herritarrei zera esango nieke, ez belhurtzeko. Pazientzia eskatuko nieke, eta edukazioa. Hemen diren gazteak ez dira delinkuenteak eta ez dira drogomenpekotasunean bizi. Gainera, kalera irteterakoan ia beti begiraleak izango dituzte aldamenean.

Udako azken jaiak

Irailaren 15ean hasiko dira Santueneko festak

Uda garaia amaitzeak bera-
rekin dakar jai denboral-
diaren akabera. Baina
oraindik gurean, Santueneko festak
eta Aginagako San Praixkuak aile-
gatzeke ditugu. Denboran gertuen
ditugunak, Santuenekoak, datorren
asteburuan ospatuko dira. Irailaren
15etik 17ra, jan, dantzatu edota
musika entzuteko aukera ugari
izango da.

Dastatzeari dagokionean, piperrak
eta sardin-jana izango da. Otorduak
etxetik kanpo lagun arte ederrean
egin nahi dituenarentzat, antolatzaileek
haurren bazkaria eta adin guz-
tietara zabalduz, herri bazkaria pro-
gramatu dituzte.

Gaua eta musika proposamenak,
bat eginda datoz. Mendeku Itxua,
Ipar Haizea eta Despervicio taldeek
kontzertua eskainiko dute ostiralean,
Esencia Argentina ikuskizunaren
ondoren. Josune Aranburu eta Dj
Larraren artean larunbat gaua joango
zaigu. Aranburu gitarjolearen abes-
tiekin kantu-afaria izango da. Gero,
joera ezberdinetako doinuekin ordu
txikiak arte arituko da lanean Dj
Larra.

Tradizio handiko ekitaldi batek ere
ez du aurtengoan huts egingo. Batek
baino gehiagok oinetako eta arropa
egokiak jantzita hurbildu beharko du
auzoko plazara. Xexenek plaza bere-
ganatuko baitute. Haurrak lasaiago
ibiliko dira ponien gainean. Gaztetxo-
enak jolasean edota margo-
tzen lehian jartzen dituzten artean,
helduek tokan aritu edo zaldi proban
gertatzen dena ikusiko dute.

Hori guztia gutxi balitz, jaiak uste-
gabeko amaiera izango dute. Azken
trakarekin batera, antolatzaileek sor-
presa bat prestatua baitute. Zer izan-
go ote da? Jaietako azken unean,
erantzuna. Ondo pasa!



PINTURA LEHIAKETAREKIN HASIKO DIRA FESTAK IRAILAREN 15EAN.
ONDOREN HASIKO DA SARDIN-JANA, ARRATSALDEKO 19:00ETAN.

Santueneko jaiak 2006

Irailak 15, ostirala

16:30 Pintura Lehiaketa haurrentzat.
19:00 Sardin-jana. Gero, buruhandiak.
21:00 Esencia Argentina ikuskizuna.
00:00 Mendeku Itxua, Ipar Haizea,
Despervicio.



Despervicio

Irailak 16, larunbata

10:30 Haur jolasak plazan.
12:00 Buruhandiak.
14:00 Haurren bazkaria, norberak bazka-
ria ekarri eta edariak bertan banatuko dira.
15:30 Haur jolasak.
16:00 Mus txapelketa.
17:30 Txokolatada plaza inguruan.
Ondoren txaranga. Jarraian, pintura

lehiaketako sari banaketa.

18:30 Poniak haurrentzat.

21:30 Kantu-afaria: Josune Aranburu
gitarrarekin.

23:30 Larra Dj.



Irailak 17, igandea

12:00 Toka txapelketa.

13:00 Zaldi proba. Aldi berean,
hamaiketako jubilatuen eskutik.

14:00 Herri bazkaria.

18:00 Xexenak plazan.

19:30 Buruhandiak.

19:30 Piper dastaketa eta txaranga.

21:00 Azken traka eta sorpresa.

Irailaren 15ean

“Euscualdunac” antzezlanak Sutegin

Hiru Puntu taldeak “Euscualdunac” izeneko antzezlanak taularatuko du datorren astean Sutegin. “Lurra” eta “Beltzeria” obrak bezalaxe, “Euscualdunac” lana ere Antton Lukuk idatzitakoa da. Etnia eta etxea gaiei buruzko gogoeta ugari biltzen ditu Sutegin eskainiko den antzezlan honek.

Irailaren 15ean Sutegira hurbilduko direnak euskaldunen azterketa sakon baten lekuko izango dira. Ez da antzezlan honen bereizgarri bakarra. Antzerki honen emanaldi guztiak desberdinak baitira. Emanaldi bakoitzean bi bertsolari gonbidatu ohi dituzte, eta esketxen artean gai librean bertsotan aritzen dira.

Euskaldunei buruzko gogoeta ugari jasotzen ditu Antton Luku idazlearen “Euscualdunac” antzezlanak. Esaldi

bakoitza hari bat da, hari bakoitza gogoeta bat, hariari tiraka gogoeta sakonagoetan sartzeko gonbidapen bat. “Lurra” antzerkiarekin hasi eta “Beltzeria” obrarekin jarraitu zikloaren hirugarren zatia da “Euscualdunac”.

Irailaren 24an Baigorri,
Elkartasuna Etorkizuna jaia
Zazpi herrialdeetako hainbat kultur talderen ekimenez ospatu ohi da urtero “Elkartasuna, Etorkizuna” izeneko jaia. Aurten, Baigorriko herria izango da bilgunea eta egitaraua oparoa izango da: haurrentzako ipuin-kontaketak, kalejira, musika... eta herri bazkaria. Herri bazkarirako txartelak Txiriboga tabernan topatuko dituzue 18 eurotan salgai. Autobusa ere antolatu da eta irailaren 24an goizeko 9:00etan aterako da eliza ondotik. Datorren alean emango ditugu xehetasun gehiago.



IRUDIAN, “EUSCUALDUNAC”
ANTZEZLANEKO AKTOREAK
(ARGAZKIA: GAIZKA IROZ).

FITXA TEKNIKO A

Euscualdunac antzezlanak

Antzezlanak: 'Euscualdunac'.

Eguna: Irailak 15, ostirala.

Tokia: Sutegiko auditorioan.

Ordua: 22:30ean.

Sarrera: 5 euro, Txiribogan salgai.

Obraren idazlea: Antton Luku.

Taldea: Hiru Puntu.

Antolatzailea: Nafartarrak.

Luis Aranaldere agurreko ospakizuna

Luis Aranalde 1996ko otsailaren 25ean iritsi zen erretore gisa Aginagara. 10 urte eta gero, Donostiako Ibaetan arituko da aurrerantzean. Hori dela eta, aginagatar batzuk agurreko ospakizuna antolatu dute. Lehenik elizkizuna egingo da, arratsaldeko 19:30ean. Ondoren, afaria Aginaga sagardotegian. Izena aldeztu aurretik eman behar da Eiza dendan, irailaren 11a baino lehen. Prezioa 27 euro.



1956an jaiotakoen afaria irailaren 30ean

Irailaren 30ean arratsaldeko 20:30ean, 56ko kintoen afaria egingo da Olarrondo jatetxean, honako menuarekin:

Entsalada epela, zapo eta langosti-noekin; porru eta ganbazko hojaldrea; zapoa plantxan, perretxiku salteatuekin, pikilo saltsa eta txapiro tintarekin; solomiloa plantxan, foie-gras eta patata purearekin.

Edaria: Rioja Vega krz., gorria, txuria, sagardoa, txakolina eta kaba. Etxeko postrea eta kafea.

Prezioa 50 euro.

Izena eman nahi duenak honako kontu honetan sartu beharko du dirua: 2101 0069 11 0125485359. Izena emateko azken eguna: irailak 15 ostirala.

NOAUA! beka deialdia, azken txanpan

NOAUA! Kultur Elkarteak 2.000 Euro bildu ditu Usurbilgo herriari buruzko ikerlan-proiektuak burutzen laguntzeko. Euskaraz burutuko diren ikerlan-proiektuak bakarrik hartuko dira kontuan. Eskaerak jasotzeko epea irailaren 15ean eguerdiko 12:00etan itxiko da. Informazio gehiago NOAUA!n, 943 360 321 telefono zenbakian edota noaua.com webgunean.



Osasunarekin lotutako lau hitzaldi antolatu ditu Gure Pakea Zahar Egoitzak

Gure Pakea Zahar Egoitzak osasunarekin loturiko lau hitzaldi interesgarri antolatu ditu Kutxaren laguntzaz. Bihotzaren funtzio-namendua, ondo lo egiteak duen garrantzia, artikulazioetako minari nola aurre egin eta bizkarreko arazoak izango dira jardunaldi hauetan landuko diren gaiak. Lehen hiru hitzaldiak elebidunak izango dira; azkena, erdaraz eskainiko da. Hitzaldi guztietan, sarrera doan.

Irailak 12, asteartea
Bihotza: bizitzaren motorra
 Hizlaria: Mari Paz Urkia.
 Ordua: 17:00, Sutegi.

Irailak 13, asteazkena
Adineko pertsonen ondo lo egitea
 Hizlaria: Jose Luis Martin.
 Ordua: 17:00, Sutegi.

Irailak 14, osteguna
Nola aurre egin artikulazioen higadurari
 Hizlaria: Izaskun Arrillaga.
 Ordua: 17:00, Sutegi.

Irailak 26, asteartea
Bizkarreko mina, Jatorria eta prebentzioa
 Hizlaria: Michel Marmier Doktorea.
 Ordua: 19:00, Sutegi.



**BIZKARREKO MINAZ ARITUKO DIRA
 IRAILAREN 26KO HITZALDIAN.**

Irailaren 11n, odol-ematea
 Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, herriko anbulategian. Oinarritzko baldintzak: 18 urte beteak izatea eta 66 urteak betetzeko eduki; 50 kilo pisatzea gutxienez; osasun arazorik ez edukitzea.

Lanbide Hastapeneko tailerretan matrikulatzeko epea amaitzear dago

Tailer hauek 16 eta 21 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude eta, bereziki, ikasten ari ez direnei edota langabezian daudenei. Sukaldaritza, edergintza, igeltseritza... eskaintza zabala da, eta ikasketen ondoren praktikak egiteko aukera izaten da gainera. Sustatzaileak, Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalak dira, Eusko Jaurlaritzak eta Europako Gizarte Fondoarekin batera.

DBHko graduatua lortu ez dutenek badute lanbide bat ikasteko aukera. Eta nahi izanez gero, baita beren ikasketak berbideratzeko modua ere. Horretarako daude Lanbide Hastapeneko tailerrak, aukera askoren artean lanbide bat ikasi, eta era berean graduatu titulua lortzen laguntzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila eta Buruntzaldeko hainbat herriren artean adostutako lankidetzak hitzarmenari esker, Lanbide Hastapeneko tailerren eskaintza zabala da. Usurbilen, esaterako, sukaldaritza eta gozogintza ikas daitezke alde batetik, eta ile-apainketa eta edergin-



**IKASTARDAK 16-21 URTEKO
 GAZTEEI ZUZENDUTA DAUDE.**

tza, bestetik. Lasarte-Orian igeltseritza eta teknika berriak edota zurgintza eta egurraren inguruko ikastaroak daude, eta Andoainen automobilaren karrozeria eta soldadura tailerrak.

Lanbide bat ikasteaz gain, lantegietan praktikak egiteko aukera dago, eta baita lan kontratu bat lortzeko erraztasun handiagoa ere. Programa honek eskualdeko enpresekin harreman onak ditu, azken urteotako esperientzia oso aberasgarria izan baita denentzat.

Irailaren 15ean amaituko da izena emateko epea
 Udaletxean egin daiteke izen-ematea, telefono honetara deituta: 943 37 19 51.

Irailaren 11n hasiko da ikasturte berria Zumarten

Beste urte batzuetan baino lehenago hasiko da ikasturte berria Zumarte Musika Eskolan, irailaren 11n hain zuzen.

Bestetik, Abesbatza taldeen orduak zehaztu berri dira. Abesteko gogoia eta zaletasuna duen edonork har dezake parte. 7 urtetik aurrerako ikaslea izatea da betebeharrak. Aurten entseguak Udarregi ikastolan egingo dira. Abesbatzan parte hartzeko matrikula: 20 euro, urte osoa (Zumarten beste gai batean matrikulatuta daudenak, doan).

Zumarte-Txiki Abesbatza, 7/10 urte
 (1999-1996 urte artean jaioetakoak)
 Astelehenetan 13:45-14:30 bitarte.
 Ostiraletan 16:30-17:15 bitarte.
 Udarregi Ikastolan.

Zumarte Abesbatza, 11/14 urtekoak
 (1995-1992 urte artean jaioetakoak)
 Astelehenetan 12:30-13:15 bitarte.
 Ostiraletan 17:15-18:00 bitarte.
 Udarregi Ikastolan.

Zumarte Gazte Abesbatza
 (1992an edo lehenago jaioetakoak)
 Ostiral arratsaldean ordubeteko saioa.
 Zumarte Musika Eskolan.

Herriko arraunlariak azken txanpan

Arraun denboraldia pil-pilean dago. Bi hilabete luzetan hara eta hona ibili dira traineruak, eta orain Kontxako bandera dago jokoan. Bertan dira bi herritar ere: Iñaki Errasti aginagatarra Astilleroako ontzian eta Jon Agirrezabalaga Zumaiaikoan. Biak uretan izan ziren pasa den igandean, baina badira zorte hori ez duten herriko beste arraunlari batzuk ere. Sailkapen estropadan San Pedroko usurbildarrek ezin izan zuten zazpi onenen artean sailkatu.

Ika-mika ugariren ostean, igande honetan erabakiko da Kontxako banderaren irabazlea nor izango den. Osteguneko sailkapen estropadan gertatutakoa ikusita, igandean zer pasako zen zalantza handiak zeuden, baina azkenean arrauna irten zen garaile. Arraunlariak esker ikuskizun paregabea izan zen Kontxako badian eta tartean ziren bi usurbildar ere.

Iñaki Errasti aginagatarrak bere lehen Kontxako bandera irabazteko aukerarekin da oraindik. Castrok hartu zuen aurrea igandean, baina Astillero sailkatu zen 2. postuan 6 segundotara eta bigarren jardunaldian ohorezko txandan izango da Kantabriako taldea. Azken asteetako nahiz osteguneko tirabiren ondoren Kontxan izan ziren igandean Iñaki Errasti eta bere kideak. Giro gaiztoa izan zuten osteguneko eta igandean ere ez ziren ohi bezala Donostiako portutik irten, Ondarretako hondartzatik baizik.

Urte zaila Iñaki Errastirentzat

Ez da urte erraza izan Iñaki Errasti eta bere kideentzat. Iazko gertakizunen ondoren ezin izan dute TKE ligan parte hartu eta denboraldiko estropadarik garrantzitsuen izaten den Kontxako banderako partehartzea ere zalantzan egon da azken momentura arte. Momentuz estropada preziatu hau irabazteko aukerarekin da Iñaki, baina igande honetan hori lortuko balute ere ez litzateke behin betiko garaipena izango, Eusko Jaurlaritzak beraiei jarritako zigorraren inguruan epaitegiek eman behar duten ebazpenaren baitan egongo bailitzateke auzi honen azken txanpa.



SAN PEDROREKIN LAU USURBILDAR ARITU DIRA AURTEN.

Jon Agirrezabalaga, lehen aldiz Kontxako Banderan

Jon Agirrezabalagak, berriz, Kontxako banderan parte hartzea zer den jakin du 4 urteko arraun ibilbidearen ondoren. Zumaia ezusteko bikaina eman zuen osteguneko sailkapen estropadan eta bosgarren denborarik onena egin ondoren Kontxan izateko txartela lortu zuten "gorritxoek". Duela 14 urte izan ziren azken aldiz Kontxako bandera irabazteko lehian eta igandean 6. postua eskuratu bazuten ere, zaletuek bandera irabazi balute bezala hartu zituzten kaian lehorreratzerakoan.

Eta ez da gutxiagorako. Iaz Euskal Ligan ari ziren arraunean. TKE ligan parte hartzeko txartela lortu zuten denboraldi amaieran, eta goreneko liga honetan lan txukuna egin dute denboraldi osoan zehar. Lau estropadaren faltan sailkapeneko 10. postuan kokatuta dago Zumaia, baina datorren urtean ere TKE ligan izango dira, jaitsiera postuetatik urrun baitira.

Denboraldi bikaina osatu du San Pedrok

San Pedroko ontzian dabilzan usurbildarrek, berriz, ezin izan zuten Kontxarako txartela lortu. Sailkapen estropadan 14. postua eskuratu zuten, baina hala ere gustura ziren herriko

arraunlariak. Datozen asteetan TKE ligara igo ahal izateko estropadak izango dituzte, eta bertan aurkari izango dituzten traineruen denboretan ibili zirela kontuan hartuta egindakoarekin pozik ziren saioaren amaieran.

Izan ere, denboraldi bikaina burutu dute Iñaki Portularrume, Berdaitz Larrarte, Urko Manterola, Alex Udabe eta San Pedroko gainontzeko arraunlariak. KAE (Kantauriko Arraun Elkarte) ligako lehen mailako 12 estropadetatik 6 irabazi dituzte eta beraientzat izan da hasieratik amaierara nagusi izan diren liga hau. Datorren irailaren 16 eta 17an Castropolen izango dira Meira eta Amegrove galiziarrekin eta Isuntzarekin batera. Itsasoan eta ibaian erlojupekoa izango dute kale beretik eta bi irabazleek Pasai Donibane eta Laredo izango dituzte aurrez aurre irailaren 23 eta 24an datorren urtean TKE ligan nortzuk arituko diren erabaki asmoz.

Bestalde, Urola-Kostako traineruan aritu den Imanol Zarautz KAE ligako 2. mailan izan da denboraldi honetan. Liga honetan 3. postua eskuratu dute eta KAE ligara igotzeko kanporaketa jokatzen ari dira. Pasa den asteburuan jokatu zuten lehen kanporaketa, baina ez zuten zorte handirik izan, azken postuan amaitu zuten Lekeitioko uretan.

Aholkua !

Konponketa tailerretan kontuan hartzekoak

Faktura ez dagoela oso garbi, fustekabeko konponketa egin dutela, ez digutela eman ordezkaturiko piezarik... Halakoak izaten dira kexarik ohikoenak ibilgailua konpontzera eramaten dugunean. Beti bezala, garrantzitsuena da gure eskubideak zeintzuk diren jakitea.

Legearen arabera, erabiltzaileak egin-beharreko konponketak idatziz jasotzeko eskubidea du. Gure aurrekontuak 12 eguneko balioa du. Erabiltzaileak aurrekontua onartzen ez badu, ibilgailua zegoen bezalaxe itzuli behar zaio. Eta aurrekontuaren truk, tailerrak aurrez hitzarturiko prezioak

dioena jasoko du. Bezeroak aurrekontua onartu eta sinatu artean, ezin da konponketarik egin. Behin lana bukatuz gero, tailerrak beste matxura edo aberiarik ikusiko balu, bezeroari galde-tu beharko dio konpondu nahi duen ala ez. Bestela, bezeroak ez du zertan ordaindu behar izango aurrekontuan zehaztutakoa baino.

Ibilgailua tailerrean gelditzen bada, gordailu-egiaztagiri bat eman behar digute beti. Aurrekontua jaso badugu edo konponketa egina dagoela jakinaz, hiru lanegun ditugu automobilaren bila joateko. Bestela, tailerrak kopuru bat kobratzeko eskubidea du, autoa bertan gordetzearen truk.



Konpontzeko erabiltzen diren piezek berriak izan behar dute; eta automobil modeloaren arabera. Salbuespen bat edo beste egin daiteke; baina horretarako, baimena eskatu behar digute. Tailerrean ordezkaturiko piezak bezeroari eman behar zaizkio.

Eguneko goardiako farmaziak

Irailak 7, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 8, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 9, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 10, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 11, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 12, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 13, asteazkena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 14, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 15, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 16, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 17, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Egin kontu !

Kontxako bandera eta Euskal Jaietara joateko tren zerbitzu bereziak eskainiko ditu EuskoTrenek

Asteburu honetan jende asko erakartzen dituen bi ekitaldi ospatuko dira: Zarautzeko Euskal Jaiak larunbatean eta Kontxako Banderaren azken jardunaldia igandean. Batera zein bestera joateko EuskoTrenek garraio zerbitzuak indartuko ditu. Hau duzue Euskal

Jaietarako ordutegi berezia. Zarautzera joateko Usurbildik ordu honetan pasako dira tren bereziak: 23:03, 00:03, 1:03, 2:03, 3:03, 4:03, 5:03, 6:03, 6:33.

Zarautzetik Usurbila itzultzeko hauek dira ahalbidetu diren tren bereziak: 23:38, 00:38, 1:38, 2:38, 3:38,

4:38, 5:38, 6:38, 7:08.

Kontxara ere, trenez

Igandean Donostiara estropadak ikustera joateko tren zerbitzua indartua izango da. Tren zerbitzu hauek gehituko dira Usurbildik Donostiarako norabidean: 9:35, 9:54, 10:35, 10:54.

Agenda !!

Irailak 10, igandea

- Endika Abril txapelketako errebote partida Zubietan. 11:00etan.

Irailak 12, asteartea

- Bihotza bizitzaren motorra, hitzaldia Sutegin. 17:00etan.

Irailak 13, asteazkena

- Loa eta adineko pertsonak, hitzaldia Sutegin. 17:00etan.

Irailak 14, osteguna

- Nola aurre egin artikulazioen higadura-ri, hitzaldia Sutegin. 17:00etan.
- "Tierra y libertad" filma, 21:00etan Sutegin.

Irailak 15 ostirala

- "Euscaldunac" antzezlan, 22:30ean Sutegin.

Irailak 15/ irailak 17

- Santueneko jaia (ikus 12. orrialdea).

Irailak 17 igandea

- Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia. 9:00etan frontoitik abiatuta.
- 10:00etan ibilaldia Bordatxo mendira ikurriña jartzera. 12:30ean gudariei omenaldia Askatasuna plazan (informazio gehiago, 9. orrialdean).

Egin kontu !!



Nafartarrak taldekoak Marinda mendian izan ziren irailaren 2an. Halaxe azaldu digute mendi irteeran bizitakoa: *"Usurbildik 10 lagun eta Arabatik beste 10 elkartu ginen. Lehenik otsategi bat ikusi genuen. Otsategi hartan 1945 urtean harrapatu zuten azken otsoa. Urte asko otsorik gabe pasa ondoren duela urte batzuk otsoa itzuli da. Herri batzuetan inguruetan ere ikusi dute. Gero, Nerbioiko ur-jauzia eta beste paraje batzuk ikusi ondoren bukatu zen ibilaldia eta bazkari eder batekin eguna. Earki pasa genuen!"*.

Egin kontu !!

Baba Beltz Txiki eguna ospatu berri da

Urteroko usadioari eutsiz, abuztuaren 31n Baba Beltz Txiki eguna ospatu zuten giro ezin hobean Andatzpe elkarteak bildu ziren usurbildarrek. Tartean, argazkian dituzuenak. Urtero kofradiara kide berriak gehitzen doaz; aurtengoan, Migel Izagirre (argazkian zutik, ezkerretik hirugarrena). Kide beteranoek bezala, txapela eta kapa beltza eskuratu zituen.



Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42



ETXEBIZITZA

- Usurbilen logela bat alokatzen da. Interesatuak deitu: 679185102.
- Usurbilen hiru logelako etxe bat alokatzen da. Abala eskatuko da. 649261704.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.
- Neska euskalduna. Pisu konpartitu batean gela alokatuko nuke Usurbilen, edo, modu onean egonez gero pisua alokatuko nuke. Arratsaldean deitu, 14:00etatik aurrera. Tel: 627285904

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Galtzaragaña 5 zenbakian garaje bat daukagu salgai. Interesatuak deitu 943361219 telefonora.
- Garaje itxita salgai, 18 m2. Merkea. Puntapax bidean. Telefono zenbakia: 610 29 18 64 (Carlos).
- Tata todoterreno bat saltzen dugu. 34.000 km, ondo zaindua eta aire egokituarekin. Prezioa: 7.000 euro. Negoziagarria. 676 636 038.
- 49 zm-tako Honada moto bat daukat salgai. Kondizio onetan eta modu onean. Interesatuak deitu 943364554 telefonora
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Emakume bat eskaintzen da 11:00etatik 13:00era etxeko lanak egiteko edota pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 659 89 90 40 / 943 365 737.
- Udan umeak zaintzeko prest nago. Telefonoa: 687 651 605.
- 17 urteko mutil bat naiz eta ekainetik irailera bitartean Usurbil eta inguruetan gustora lan egingo nuke. Eskaintzen bat baduzu deitu 650491552 telefono zenbakira.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.

- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. Lau orduz, goizeko 7:30etik 11:30era. Telefono zenbakia: 943 37 06 91 (ilunabarrean deitu).
- Irailetik aurrera pertsona bat behar dugu Zubietan haur bat zaindu eta goizez etxeko lanak egiteko. 943 36 71 29 / 660 779 160.
- Etxeko lanak goizez egiteko pertsona heldu bat behar dugu, esperientziduna eta euskalduna. 607233255.
- Arratsaldean etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabilta 645403905.
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. 661972670.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Eskopeta salgai, Beretta Saut 303 modelo, 6 puntuko txoke mugikorra. Oso egoera onean. Tel: 607457004, Dani.
- Larunbatean Puntapax 22-24 artean dortoka bat agertu zen. Udaltzaingoak jaso eta animalien babeslekura eraman du.
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazunarekin, gustora hartuko genuke. 943360321.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosi nuke. Tf. 605 72 48 24

Txerrimunik ordainetan !



Zorionak Xabier eta Ramon!!

Abuztuaren 8an eta 31n egin dituzue urteak eta ez pentsa gogoratu ez garenik. Zorionak bioi! Maite zaituztegu. Besarkada handi eta estu-bana. Eutsi goiari!! Estatus politikoa orain Euskal preso eta iheslariak ETXERA!

Zorionak Ekain!

5 urte haundi egin dituzu. Muxu goxo goxoak aitatxo, amatxo eta Ibairen partez.



JAIOTAKOAK

- Aitzol Portularrume Miguel
Uztailaren 13an.
- Aitor Alustiza Erauskin
Uztailaren 16an.
- Egoitz Pagola Zuriarrain
Uztailaren 20an.
- Ibai Salegi Urrestarazu
Uztailaren 28an.
- Nikole Iribar Sagarna
Uztailaren 29an.
- Juan Marco Pagola Caballero
Uztailaren 30ean.
- Aroa Faro Ikutza
Abuztuaren 9an.
- Eneko Lorente Beloki
Abuztuaren 17an.
- Lorea Dominguez Muñiz
Abuztuaren 26an.

HILDAKOAK

- Esteban Lertxundi Uri
Uztailaren 26an hil zen, 66 urte zituela. Kalezar.

- Jose Antonio Izagirre Beloki
Abuztuaren 23an hil zen.

- Joxe Mari Odriozola
Urroz
Irailaren 4an hil zen
58 urterekin.





Usurbil aztergai

NOAUA! Beka Deialdia 2006

NOAUA! Kultur Elkartea elkartea@noaua.com 943 360 321

NOAUA! Kultur Elkartek
2.000 euro bildu ditu
Usurbilgo herriari
buruzko
ikerlan-proiektuak
burutzen laguntzeko.
Historia, soziologia,
biologia, kultura...
Burutu nahi den ikerlana
edozein alorretakoa
izan daiteke. Baina, beti
ere, Usurbilgo herriari
buruzkoa.

Eskaerak jasotzeko
epa 2006ko irailaren
15ean itxiko da,
eguerdiko 12:00etan.

Beka deialdiaren
oinarriak NOAUA! Kultur
Elkartearen egoitzan
(Bordaberri 3
Eguzkitzaldea 20.170
Usurbil Gipuzkoa)
eta www.noaua.com
webgunean.

JOSE AIZPURUA
UNIANUE

TELATUAK • FATXADAK
Pinturak, karga, 1-54, Lizarri-Olita
943 36 14 83
Ouzhar karga 24, Lizarri
943 69 68 82

URDANTZI

943 32 72 64
649 43 54 75
649 43 54 76

ERRAZKIN

943 372 679
943 365 125
629 420 565
649 435 470
urki.mibae@euskaltel.net

Josue
Aranzazistroki

943 360 550
606 372 105
Juan Jose Arana 1, Nizkor

Antonio
URRIZOLA

Tel.: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Astoszuain Industrialdia, 3

BEREZIARTUA
S.L

egurra eta
egur-aluminiozko
leioak - eskailerak
Aginaga 943 371 571

BARRENETXE

Salsamendi Arregi, Imanol
Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barren Elxe Kalea
ZUBIETA

Javier
Orbegozo

Gasa-berokuntza
659 602 789
Enreka Txiki 13, Bask

Jose txo
ikatzeta

687 951 225

Lataillade

gasa, berogintza
klimatizazioak eta
mantenimendua
609 888 021

portularrume

Bainuko altzairuak
Manparak
943 364 637

JOSEBA
ARANGUREN

943 830 072
659 883 912

andoni
marcoak

605 702 517
Arrantzale p. 8-20

fernando

PINTURAK
enpapelaketak
lurzoruak...
943 366 014

IZAGUIRRE

943 365 095
609 068 111
Goiz 424, ETXEA 37
KALEZAR

ARGILAN

Jose Luis Borda Zugasti
Industria instalazioak korporatibak
943 361 380
629 272 859
Borda Henri 5 behe

gremioen gida

IGELTSERITZA

AROSTEGIAK

ITURGINTZA

PINTURAK

ELEKTRIZITATEA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaia.com